

Laneko jazarpena edo mobbinga

Sistematikoki burututako ekintza multzoa *damobbinga*, eta helburua, langileak berak bere borondatez lanpostua uztea izaten da sarritan, enpresari kosturik eragin barik. Ekintzok denbora luzez egiten dira eta pertsona baten edo gehiagoren osotasun fisikoa edo psikologikoa kaltetzea dute helburu. Nagusikeria egoera sortzen da. Langilearen ospea eta komunikatzeko bideak hondatu nahi izaten dira, bere lan-funtzioak nahaspilatuz, horrela langileak alde egin dezan. Berdin gertatzen da enpresa pribatu zein publikoetan.

Zer ez da laneko jazarpena?

Taldeko ekintza antolatua, aparteko ekintza, solaskide bi edo gehiagoren arteko gatazka, hauek guztiak bortitzak izan arren, baina beti maila berean ematen badira. Aurreko egoera edo ekintzok gehiegizkoak izatera heltzen badira, jazarpenaren abiapuntu izan daitezke.

Nola/Zelan sumatzen da?

Bidegabeko presioak eta kritikak: hutsegiteak eginarazi, bere ospe profesionala kendu.

Bakartzea: bazterketa, bakartze fisikoa, ez zaio berbetan uzten, esaten duenari jaramonik ez.

Erasoak duintasunari: izen ona kentzea, irain pertsonalak, burla, gutxiespen keinuak...

Ahozko bortizkeria, bortizkeria fisikoa edo sexuala: mehatxu fisikoak, bultzakadak, atekolpeak, oihuak, dei telefonikoak, kalteak bere ondasunetan...

Ez dago ageriko gaitzespenik: Ez dago edo oso hutsalak dira. Biktima harrapatuta dago, ezin du ezer egin: ez daki zer leporatzen dioten eta bere egonkortasuna galtzen du. Ez du ezer ulertzen, dena bere errua izan eta bere onetik aterata dabilela uste du.

Gaixotu egin daiteke?

Bai. Antsietatea, depresioa, buruko minak eta osasunean eragina duten bestelako arazoak sortu daitezke. Biktima *mobbinga* gertatu daitekeen egoerak saihesten ahaleginduko da. Dena pasatu eta gero, berriro gertatuko delako beldurrak eta segurtasun gabezia handiak iraun ditzakete.

Zer egin daiteke?

Familia medikuak Osasun Mentaleko eta Lan-Osasuneko zerbitzuetara bideratu dezake langilea; eta informazioa eman behar die sindikatuei, abokatuei eta kaltetuen elkartei.



Gaixoaldi-baja ez da egoeraren konponbidea, baizik eta gaixoaren sufrimendua denboraldi batez arintzeko modua. Gaixoaldi-baja luzeegia bada, arazoa kronikoa egin daiteke eta lanera berriro joateko fobiak agertu daitezke.

Lan-ikuskaritzan ere salatu daiteke.

Ahal den heinean, onuragarria da ekintza kulturalak edo bestelakoak egitea, langilearen auto-estimua indartzeko.